


## AUTOEBALUAZIOA

## II. MODULUA: EREDU MULTIKONPARTIMENTALAK

1. 100 mg lidokaina bena-barnetik administratu ondoren, kontzentrazio plasmatikoen profila ekuazio honekin adierazi daiteke:  $C_p = 2.6 e^{-5t} + 0.52 e^{-0.4t}$  non t ordutan adierazten den eta  $C_p$  mg/L. Zenbatekoa da lidokaina argitzapena?
- 55 L/h
  - 32 L/h
  - 1.82 L/h
  - 18.5 L/h
2. Zein parametro aldatzen da dosiaren arabera?
- $\beta$
  - $t_{1/2\beta}$
  - Cl
  - AUC
3. 100 mg lidokaina bena-barnetik administratu ondoren, kontzentrazio plasmatikoen profila ekuazio honekin adierazi daiteke:  $C_p = 2.6e^{-5t} + 0.52 e^{-0.4t}$  non t ordutan adierazten den eta  $C_p$  mg/L-tan. Zein izango da ekuazioa 200 mg-ko dosia administratzen bada?
- $C_p = 5.2 e^{-10t} + 1.04 e^{-0.8t}$
  - $C_p = 5.2 e^{-5t} + 1.04 e^{-0.4t}$
  - $C_p = 2.6e^{-5t} + 0.52 e^{-0.4t}$
  - $C_p = 2.6e^{-10t} + 0.52 e^{-0.8t}$
4. Eredu bikonpartimentalean, farmakoaren kontzentrazio plasmatikoak konpartimendu periferikoan:
- Beti konpartimendu zentrolean baino altuagoak dira
  - Beti konpartimendu zentrolean baino baxuagoak dira
  - Altuagoak edo baxuagoak izan daitezke, farmakoaren ezaugarrien arabera

5. Portaera farmakozinetiko bikonpartimentala duen farmako bat aho-bidetik administratu ondoren, lortzen den profil plasmatikoa irudian agertzen da. Profil hau lortu daiteke baldin eta:



- a)  $K_a \leq \alpha$
- b)  $K_a > \alpha > \beta$
- c)  $\beta > \alpha$
- d) Profil hau ezin da ikusi eredu bikonpartimental baten kasuan